

Eibar

Amaña

Amañako parrokia, sortu zanetik bertatik, aurrelaria izan da diru kontu arazoetan. Parrokia honetan, ez dira elizkizunak eta elizako beste premlak ordaintzen. Orain arte, bakoitzak ahal ebana eta gura ebana ematen eban hilabetero. Hala ere, oraindik laurhun mila pezetako zorra dagoela ta, horrez galnera urtero bostehun mila pezetako interesak ordaindu beharra dagoela ta, ezin bestean, ordain sistema apurtxo bat aldatu behar izan dabe diruzalnek. Hain zuzen, hemendik aurrera kuota zehatzak jarriko dira, 25, 50 eta 100 pezeta hilabeteko, familia bakoitzaren ahalmenaren arauera*.

Aginaga

Aginagarrak elbartarrak el* dira. Izango dira bai, balna ez Ixua-ko hegoaldeetik begiratuta, Iparraldetik balno. Esan gura dogu, aginagarrek euren burua elbartartzat daben artean, hegoaldeko elbartarrak gutxi balno ez garela eurekin gogoratzen. Hain zuzen, esku lotu eta begi itsu Aginagara eroanez gero, zenbat elbartarrek ezagutuko leukee Aginaga auzoa?

Dana dala, urte barruan aginagarrak elbartarragoak bihurtuko jakuz, edota elbartarrak aginagarragoak. Barinaga zehar, Markinatik Eibarrera datorren bide berritik, eskuln aldera eta gorantz kilometro eskas batez, Aginaga bertaraino izango baitogu* karretera.

«Helga»

Urtarrilaren* 12an, S. C. R. Arrateko areto* txikian, «Helga» izeneko filme ospetsua ikusteko aukera izan dogu. Jende asko zan, gainezka aretoa; ez dau S. C. R. Arratek alferrik egundainoko propaganda egin. Beharbada, ez zan beharrezko; hala ere...

Filmea interesgarria iruditu jaku, interesgarria ezezik harrigarria. Haurraren* sortzea, hastapenak* eta ondorengo eboluzioa, mirari bat balira legetxe* ikusi ahal izan ditugu aurrez aur. Izan ere, nahiko miraria bizitza bera.

Gasze asko zan ikusleen artean, gazteek berezko baitabe* jakin-mina. Hala ere, beldur gara, askoren jakin-nahia ez ote dan ikus-mina balno besterik. Penagarria, balna egla: ez al da gizakumea abererik handiena?

Txirindulariak

Baletz eta ezetz, ezetz eta baletz: eztabalda makurrak erabili ditue agintarlek eta Eibarko Txirindulari Klubekoek. Epelgez lehen-dakarl jauna zlgortua zala ta, beste izkutukorik ere ba zala ta, nork dakl zer azpijan dabilen hor zehar. Irakurri ere irakurri genduan, Eibarko Klubeak ez ebala aurtan txirridulari probarik eratuko.

Geroztik, giroa aldatu bide* da. Beste «maila» batetako jendea ere sartu el* da nahastean. Azkenean, «formalismo», «konbentzionalismo», eta irakurleak gura dituan «ismo» guztiek irabazi bide* dabe, eta zorioneko Euskal Herriko Txirindulari Jira eratuko dala dirudi, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Errioxa eta Nafarroa balno ez bada behintzat Euskal Herria.